

2016ko azaroak 3
9.15etatik 14etara
Boluntaren ekitaldi-aretoa
Zabalbide kalea, 1



Sareen sare
Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euzkadi



bazkako hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



Nola hobe dezakegu Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeek eta sareek Europako programetara duten sarbidea?

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako erakundeek eta sareek Europako testuinguruaren baitan duten posizionamenduan eta Europako finantzaketarako sarbidean nolabaiteko gabezia historikoa dago eta esparru batzuetan beste batzuetan baino handiagoa da hori. Dena den, Europako proiektuetan eta sare transnazionaletan parte hartu duten eta parte hartzen duten erakunde batzuek izandako esperientziak hedatu izana eta Hirugarren Sektore Sozialaren misioa, eragina, finantzaketa eta proiektzioa hedatzeko beharrak direla eta, ekimen hauetan parte hartzeko interesa gero eta handiagoa da.

Estatu mailan, Europako finantzaketa Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen finantzaketa publikoaren gutzitza % 2,8 baino gutxiagokoa da¹; aldiz, Hirugarren Sektore Sozialako erakundeek Europako finantzaketa, Euskadiren kasuan, finantzaketa publiko osoaren % 0,5era ere ez da iristen, eta erakundeek % 4,94² bakarrik izan du sarbidea.

¹ Gizarte Ekintzak GKEaren plataforma. *Estudio completo el TSAS en 2015 impacto de la crisis*. Ed. Plataforma de ONG de Acción Social, 2015eko azaroa, 106. or., [online](#) eskuragarri. Datu ekonomikoak 2013ko ekitaldiaren itxierakoak dira.

² OTSBizkaia. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria. Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak argitaratua, 2015eko abendua, 111. or., [online](#) eskuragarri. Datu ekonomikoak 2013ko ekitaldiaren itxierakoak dira.

Horregatik, **Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuriak** jasotzen dituen orientazioen artean, honako hau dago jasota: “**erakundeen eta sareen sarbidea bultzatzea Europar Batasuneko finantzaketara**. Horretarako, Eusko Jaurlaritzarekin eta egoitza Bruselan duen Europar Batasunerako Euskadiren ordezkariarekin harremanetarako estrategia ezarriko da”.

Bestalde, **Europa** aipatzen dugunean **proiektu komuna** esan nahi dugu, haren **dimentsio soziala** indartzen lagundu nahi dugu eta Hirugarren Sektore Sozialaren ekarpena giltzarria izango da bidezkoa, berdintasunezkoa, iraunkorra, parte-hartzailea, demokratikoa eta abar izango den gizarte-eredua eraikitzeko.

Hain zuzen ere, sare batzuetarako, duten izaeragatik eta rol sozialagatik, erronka ez da Europako proiektuak garatzea, baizik eta Bruselan presente egotea eta erabakiak hartzean eta politiken diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea. Ildo horretan, Europar Batasunean presentzia garrantzitsua eta erabakigarria duten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen adibide asko topa ditzakegu

Edonola ere, finantziazioa beharrezko euskarria da (nahiz eta ez den beti ezinbestekoa) erakundeen Europako dimentsioari bultzada emateko, nazioen arteko lankidetzarako, partekatutako ikaskuntzarako eta esku-hartze proiektuak batera garatzeko, eta hala, erakundeen misioa zabaltzeko ahal izateko, eta horrez gain, sareko lana sustatzeko nahiz Europa mailan eragin sozial eta politikoaren funtzioak indartzeko.

Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokitik, Sareen Sarearekin elkarlanean, **helburu horrekin lotutako oinarri batzuk ezartzen eta eragileen arteko gerturatzea bultzatzen lagundu nahi dugu**. Horretarako, gai hori lantzeko lehen hurbilketa bultzatuko duen jardunaldia antolatu dugu.

Honako hauek dira jardunaldiaren helburuak:

- a) Europako finantzaketarako sarbidearen inguruko Euskadiko errealitatea modu sakonagoan ezagutzea (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialerako interesekoak diren Europako programak eta deialdiak, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakunde batzuen esperientziak, bideak, laguntzak eta oztopoak...).
- b) Dagoen gabezia azal dezaketen arrazoi batzuk identifikatzea eta aztertzea (batez ere, esparru batzuetakoa).

Tailerrean aurreko egunean identifikatutako zailtasunak eta arrazoiak sakondu nahi ditugu, eta estrategia bat definitzeko oinarri batzuk ezarri, Euskadiko Hirugarren Sektoreko Sozialeko erakundeek Europako finantziatorako sarbidea hobetzeko eta Europa mailan duten eragina handitzeko.

Espazio hau, duen metodologiagatik, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sareetan eta Europa mailan esperientzia duten erakundeetako partaide kopuru txiki baterako pentsatuta dago. Bertan parte hartzeko gonbidapena beharrezkoa da. Zerrendan ageri ez den norbait gonbidatzea egokia dela iruditzen bazaizue, jar zaitezte harremanetan Behatokiarekin email honen bidez: promoción@3sbizkaia.org

Jornada: azaroak 2

09:15. Harrera eta materialen banaketa.

09:25. Jardunaldiaren aurkezpena.

9.30. Hitzaldiak.

09:30. Itziar Fernández. Europe Direct Bizkaia bulegoa. ***Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek Europako programetara (esparru orokorra) duten sarbidea: intereseko programak, sartzeko bideak, laguntzak eta egon daitezkeen zailtasunak.***

10:00. Marta Marín. Europar Batasunerako Euskadiko ordezkaritza. ***Ordezkaritzako lanaren aurkezpena. Erakundeek Europako programetara duten sarbidearekin lotutako faktoreak jasotzen ditu.***

10:30. Hizlariekin eztabaida.

11:00. Atsedena dia.

11:30. José Manuel Fresno. Hirugarren Sektore Sozialerako Europako programetan aditua. ***Nola hobe dezakegu erakundeek Europako esparrura duten sarbidea?***

Hitzaldiaren aurkezpena eta eztabaida.

12:30. Mahai-ingurua. Partaidetza-esperientziak Europako proiektuetan. ***Esperientziak, zailtasunak, laguntzak eta ikaskuntza nagusiak Europako programen garapenaren baitan.***

Koopera. Aitor Gazteluiturri.

Kiribil Sarea. Alex López.

Sendotu Aldi Berean. Oraindik zehaztu gabe.

13:30. Eztabaida mahai-inguruan parte hartu dutenekin.

14:00. Jardunaldiaren amaiera.

TAILERRA: Azaroak 3, 09:15etik 14:00etara

Tailerrean, erakunde, sar eta pertsona hauen laguntza eta lankidetzaz izango dugu:

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sareak.

1. Sareen Sarea. Mikel Barturen.
2. Kooperera (oraindik zehaztu gabe pertsona(k)).
3. Kiribil Sarea. Alex López.
4. Sendotu Aldi Berean.
5. FEVAS Plena Inclusión. Begoña Pérez del Palomar.
6. EAPN. Alfonso López.
7. ELKARTEAN (oraindik zehaztu gabe pertsona(k)).
8. FEDEAFES. Maria José Cano.
9. EHLABE. Leire Ansorena eta Silvia Abad.
10. GIZATEA / REAS. Arantza Saenz de Ugarte.
11. Euskadiko GGKEko koordinakundea.

Euskal diputatuak Europako Parlamentuan.

1. Josu Juaristi.
2. Izaskun Bilbao (bideoa).

Euskal eurodiputatu guztiak gonbidatu ditugu, eta kasu askotan agenda-arazoak zituztenez, tailerraren ondorioak jasotzeko interesa adierazi dute.

Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusia. Eta Enplegu eta Gizarte Politika Saila.

1. Amaia Beloki. Europar Batasunerako Euskadiko Ordezkaritzako teknikaria.
2. Lide Amilibia. Gizarte Politiketako sailburuordea.
3. Emilio Sola. Gizarte Zerbitzueta zuzendaria.
4. Amaia Arteaga. Enpleguko Plangintza eta Berrikuntzako zuzendaria.
5. Miren Ortega. Enpleguko Plangintza eta Berrikuntzako Zuzendaritzako teknikaria.

Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiak (baieztatu gabe).

Oraindik konfirmatu gabe dauden pertsona eta erakundeez gain, baliteke beste sare edo erakunderen bat ere gehitzea.

Gainera, honako hauen laguntza teknikoa izango dugu:

- Itziar Fernández. Europe Direct Bizkaia bulegoa.
- Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialeko dinamizatzaileen taldea.

Tailerraren dinamika erantsitako dokumentuan dator planteatuta.